



BARREN  
TOKIKOM

# Trinitate jai birtualak





## *Juan Carlos Cebrian Carrero*

2020ko ekainaren 3an hil zen, 48 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Ausarta izan zara une oro,  
umorez betea egunero.  
Denoi erakutsi diguzuna  
ez dugu ahaztuko.  
Maite zaitugu***

Familia



## *Carlos Cebrian Carrero*

2020ko ekainaren 3an hil zen, 48 urte zituela.

***Izar hautsa baino ez gara, eta disdiratsuena zurea.  
Egin argi gure bidean mesedez, blaitu gaitzala zure pozak.***

GaraRock & Sinuöse  
Zure Mendaroko eta  
Elgoibarko lagun musikeruak



I. URTEURRENA

## *Maite Bereziartua Garmendia*

***Gurekin eta guregan somatzen zaitugu.  
Eskerrik asko.***

Etxeoak

***“Donostin bizi izan zenun  
haurtzaro ta gaztarua  
Madarixako jaietan  
topatu amodiua  
Elgoibarrera ezkonduz  
eman zenuen pausua  
egunez egun bizituz  
zuen amodioaren sua  
bi kukun jaiotzarekin  
sinatuz konpromezua  
besteei onena eskeiniz  
zure bizitza osua  
emazte, ama, amona,  
benetan, bai, goxua  
zurekin ezautu degu  
lurrean bertan zerua”***

2019ko ekainaren 10ean hil zen  
Donostian, 82 urte zituela.

Doinua: Habanera

### IBAN ALKORTA, Bacalaos Alkorta

*“Euskaraldiaren lehen edizioan hartu genuen parte, eta aurten ere hartuko dugu”*

#### ◆ Zer moduz zaudete Bacalaos Alkorta enpresan?

Osasunez ondo gaude, eta enpresari dagokionez, lana jaitsi egin zaigu, gainerako enpresei bezala. Egoera berria egokitu behar izan gara, eta zorionez, poliki-poliki aurrera goaz. Une honetan komertzialen bat oraindik aldi baterako erregulazio espedientean dago, baina bestela ia lantalde guztia lanean ari gara.

#### ◆ Euskaraldiari tartea eskaintzeko moduan zaudete?

Gu gurean zentratuta gaude, hau da, produktizera eta saltzera, baina euskarari garrantzi handia ematen diogu, eta Euskaraldiarekin bat egiteko prest gaude.

#### ◆ Zein leku dauka euskarak zuren enpresan?

Euskara nahiko serio hartzen dugu. Gure artean euskaraz hitz egiten ahalegintzen gara, eta gure nahia da euskara izatea gure komunikaziorako hizkuntza nagusia. Langile gehienok euskaldunak gara, eta ahalegintzen gara euskaraz funtzionatzen. Enpresa munduan euskaraz aritzea ez da erraza. Euskal Herria gure merkatuaren %5a da soilik, eta euskararekin bakarrik ezin gara gure merkatura iritsi. Espainian, Frantzia eta Italia saltzen dugu gehien, eta mundu osoko beste hogeita bat herrialdetan ere baditugu bezeroak, eta hor euskararekin ezin dugu gauza handirik lortu. Une honetan gure langileak ingelesa eta italiara ere ikasten ari dira lanerako behar dutelako, baina hemen, gure artean, euskaraz hitz egiten dugu, eta gure arteko idatzizko mezuak ere euskaraz idazten saiatzen gara. Badago langile bat ez dena *Ahobizi*, baina *Belarriprest* bada, eta hari ere euskaraz egiten diogu gehiena.

#### ◆ Euskaraldia bezalako ekimenak interesgarriak iruditzen zaizkizu?

Bai, guk bultzatzen ez badugu euskara, nork bultzatuko du? Ni euskalduna naiz, eta euskara maite dut. Euskara da gure altxorra, eta nahi nuke datozen belaunaldiek euskara normalizatuta ezagutzea. Euskaraldiaren lehen edizioan hartu genuen parte, eta aurten ere hartuko dugu.



### BEÑAT BILBAO, Etxepen

*“Etxepeko bazkideek sorreratik erabaki zuten barne funtzionamendua euskaraz izatea”*

#### ◆ Nola eragin dizue koronabirusak Etxepen?

Derrigorrez itxi behar izan genituen hamabost egun horietan ez genuen lanik egin, baina bestela lanean gaude. Segurtasun neurriak hartu ditugu, langileen arteko distantziak zaintzeko arazorik ez daukagu eta garbitasunari arreta berezia jarri diogu. Pixkaterako oraindik badaukagu lana, baina kezkatuta gaude gure bezeroei lana gutxitzen ari zaielako, mugikortasun arazoak daudelako, eta oro har, lanerako zailtasunak daudelako. Udatik aurrera lana asko gutxituko dela uste dut.

#### ◆ Euskaraldia Taldekoekin egoteko moduan zaudete?

Une honetan burua beste gauza batzuetan daukagu, baina Euskaraldia taldekoei ere egingo diegu tartea, gurean euskarak garrantzi handia duelako.

#### ◆ Zein erabilera dauka euskarak Etxepen?

Gure sektorean ezinezkoa da euskaraz bakarrik funtzionatzea, herrialde desberdinetako bezeroak ditugulako, baina Etxepen euskarak garrantzi handia dauka. Etxepeko bazkideek sorreratik erabaki zuten barne funtzionamendua euskaraz izango zela, eta ahal den heinean kanporakoa ere bai. Konpromiso hori hartu zuen enpresak hasieratik. Langileak hartzerakoan ere, ez dago inon idatzita euskaraz ez dakiena ez dugula kontratatuko, baina maila bereko bi langileren artean, euskaraz jakitea baloratzen dugu.

#### ◆ Zer iruditzen zaizkizu honelako ekimenak?

Nik uste dut Euskaraldiaren lehen edizioak lagundu zuela ohitura batzuk aldatzen. Esango nuke lehenengo hitza ere beti gazteleraz egiten duten horiek saiatu zirela euskaraz egiten. Nik hartu nuen parte eta Etxepeko beste langile batzuek ere bai. Bigarren edizioan Etxepe bezala parte hartzeko moduan egongo garela uste dut, eta egingo dugu ahalegina gure langileek ere parte hartu dezaten.



## IBON SERRANO LASA

Ingeniaria

## "POSTCOVID garai latzak datozkigu eta ausardia eta lidergo beharra dugu!"

- Gandalf aztia! Nolatan ba berriro Hobbitlandian? Arduratua dirudizu.

- Kaixo, Pippin, hobbitoi laguntzera natorkizue Lothlorin elfoen lurraldetik. POSTCOVID garai latzak datozkigu eta ausardia zein lidergo beharra dugu! Lothlorindarrak jadanik hasi dira etorkizun berria antolatzen! Larrialdi klimatikoa, trantsizio energetikoa, ekonomiaren berrikuntza eta dibertsifikazioa, lan molde berrien diseinua, aberastasun banaketa, kontsumo jasangarriaren ehuntzea, auzolan eta lankidetzaren indartzea, osasun sistemaren berregituraketa, hornikuntza sareen gerturaztea, "elfogintza" eta abar!

- Ba hain zuzen etorkizunaz ari nintzen Merryrekin, batu zaitez elkarrizketara, bada, Gandalf!

- Egunon, Gandalf! – Merryk – beraz, Pippin, azkenik izango al dugu aurten masusta mermeladaren jaia ospatzerik?

- Zorionez bai, Merry! Done Anakleto gure patroia eguna 4.6.7 fasearen hasieran litzatekeelako; txintxo bada-rraigu noski; beraz irustarbi pattarraz etxean horditzen jarraitu mesedez.

- Neurri berezirik, Pippin? – Merryk.

- Beirazko potok 997<sup>o</sup>tara 26 orduz pasteurizatu eta esterilizatu behar direnez erabilera bakarrek plastikozkoak erosi ditugu. Eskaintza berezi bezala, PLASTYPHORM enpresak %2ko beherapena egin digu ontzien prezioan. Trukean jaialdia berrizandatu da; hemendik aurrera PLASTYPHORM BLACKBERRY JAM FESTIVAL deituko da.

- Zoragarri! – Merryk – besterik, Pippin?

- Musukoa derrigorrezkoa izango da, Merry; baina lasai,

Konfituraren Kofradiak ekitaldi berezi honetarako aho inguruan zuloa baimentzea lortu baitu. Beraz mermelada dastatu ahal izango dugu (eta bide batez hirustarbi pattarraz horditu, benetan baitugu laket edabe hau hobbitok). Bezperan argitaratuko da BOEn, horrenbeste espero dugun *fungolin* finalaren datakin batera!

- Bejondeigula, Pippin! Beraz, prest orduan mermelada ontziratze lehiaketan villarribatar hobbitei egurra emateko?

- Masusten horniketa zalantzan oraindik, Merry. Azkenaldian basoko piztiak bizkondearen megafundioan muturra sartu eta BPG hazkundera %0,000005 moteldu diote-eta.

- Mendekua! Igandean emazteak etxean utzi, 4x4ak hartu eta ehiza "monteria" egingo dugu, Pippin!

- "Bikain! ...Gandalf? nora zoaz horren burumakur?"



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaoa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olai-zola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► BUELTAN GARA, KALEJIRAN

Azken hilabeteetan bizi dugun egoera larri honetan Trinitateak gainean ditugu. Trinitate iganderako diana berezia prestatu dugu Udal Txistulari Bandakook, beharrezko dugun baimena beti ere lehenetsun harturik. Jose Inazio Sarasua gure taldeko zuzendaria joan zitzaigunetik, bere *Argazkilariak* biribilketa ederra jotzen dugu data garrantzitsu honetan. 1984an Ongarri Argazki Kolektiboak antolatu zuen Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteko kongresua eta horren harira bururatu zitzairen biribilketa bat egitea, Argazkilari Taldeen Elkarteko ereserkia izango zena. Horregatik darama *Argazkilariak* izena. Ereserkia Jose Inazio

Sarasuak egin zuen eta azken moldaketa Jose Inazio Ansorenak.

1996an, Elgoibarren Kilometroak jaiaren harira, Elgoibarko Ikastolak garai hartako herriko musika talde guztiak gonbidatu zituen CD bat grabatzera, eta bertan jasota dago pieza hau, Elgoibarko Udal Txistulari Bandak jota.

### Elgoibarko Udal Txistulari Banda

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEK edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitoez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birakak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitz argitaratuko.



★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA

★ MULTIKOPISTAK

★ FOTOKOPIADORAK

★ ERLOJU INDUSTRIALAK

★ MARRAZKETA  
MATERIALA

★ INFORMATIKA

★ FAX

**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Jon Aranao  
Guillermo Torres



Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel: 943 740 704 - 639 047 337  
Asteleheneetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larribatak: 11:00 - 13:00

Peapaindegi zerbitzua daukagu.  
Deitu ardua hartzen.



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**

**CORDON VILARCHAO**

[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**

**LG 55U7100PLB TELEBISTA**



LG UHD TV AI ThinQ

**449 €**

- Smart TV, adimen artifizialarekin
- 10 biteko Quad Core prozesatzailea
- 4K Active HDR (HDR10, HLG eta eszenaren doikuntza dinamikoa)
  - Soinu ultra Surround
- A+ energia-mota • 3HDMI • 2 USB

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## Ekainaren 15ean zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak, edukiera mugatuta

Kirol instalazioak zabalteko plana prestatu dute Elgoibarko Udalak eta Udal Kirol Patronatuak, eta jakinarazi dute ekainaren 8an zabalduko dutela Mintxetako kirolgunea, eta ekainaren 15ean hasiko dutela aire libreako igerilekuetan uda denboraldia. Aurtengo denboraldia, baina, desberdina izango da igerilekuetan. Edukiera %30ean txikitu dute, eta gehienez, mila lagun sartu ahal izango dira. Patronatutik jakinarazi dute "oso egun gutxitan" gairitu izan dela mila laguneko muga hori, beraz, uste dute edukiera horrekin ez dela arazorik egongo, belar eremua handia delako. Igerileku handian 75 lagun egon ahal izango dira gehienez, eta txikian, berriz, 15. Haur parkea eta iturria ezingo dira erabili, eta ur jolasak itxita egongo dira. Berdegunea plastikozko kono-pibote batzuekin zatituko dute. Lursail bakoitzak 16 metro koadro izango ditu; beraz, 220 lursail izango ditu guztira belarguneak, eta eremu horietan sartu beharko dira erabiltzaileak. Igerilekuen harreraren kokatutako bi pertsona arduratuko dira sarrera eta jende kopurua kontrolatzeaz, sarrerak eta irteerak zenbatuz. Era berean, erabiltzaileen zirkulazioaren norabide zuzena kontrolatuko dute, eta jende pilaketak sahistuko dituzte. Bi pertsona hauetako batek, behar izanez gero, "egokitzail" funtzioak beteko ditu, berdegunean erabiltzaileentzako lursailak banatzen. 14 urte-tik beherakoak heldu baten zaintzapean egon beharko dira uneoro, eta nahitaezkoa izango da erabiltzaileen artean bi metroko distantzia mantentzea. Printzipioz ez da aurretiazko hitzordurik eskatu behar, eta egonaldia mugagabea izango da. Edukiera muga gairiditzen dela ikusiko balute, aldaketak egon daitezke. Uneoro bi sorosle egongo dira, eta horiek arduratuko dira erabilera araudia betetzeaz, bai bainu-eremuan bai solariumean, eta bainularien segurtasuna bermatzeaz.



Era berean, higijene eta desinfekzio zerbitzua indartuko dute, eta egunean hiru aldiz garbituko dute igerilekua. Al-dagelak itxita egongo dira, baina komunak zabalik. Komunera joatean derrigorrezkoa izango da eskuak gela-ekin garbitzea, eta erabiltzaileen artean bi metroko distantzia gordetzea.

Ordutegiari dagokionez, orain artekoa mantenduko dute: Astelehenetik barikura, 11:00etatik 20:30era eta zapatu eta domeketan, 10:00etatik 20:30era. Abuztuan eta irailean, ixteko ordutegia 20:00etara aurreratuko dute.

### Olaizaga kiroldegia, itxita

Olaizaga kiroldegiko igerilekuak ez dira irekiko irailera arte, estalitako igerilekuak hezetasun handiko eta aireztapen behartuko guneak direlako, eta pertsonen segurtasun eta higijene-baldintzak ziurtatzeko zailtasuna daudelako. Kiroldegiak eskaintzen duen jardueraren zati bat (muskulazio-gela eta ikastaroak) Mintxetara eramango dituzte; beraz, Olaizaga Kiroldegi osoa itxita egongo da.

### Kirol-gunea, ekainaren 8an

Mintxeta kirolgunean dauden zenbait instalazio erabiltzeko aukera izango da ekainaren 8tik aurrera: atletismo-pista, muskulazio-gela eta kardiogela, tenis-pista eta padel-pistak, zerbitzuak eta ostalua. Oraingoan, ezingo da futbol-zelaira, harmailetara eta aldageletara sartu. Kirolguneko sarreraren sarbide-kontrol bat ezarriko dute. Kontrol horretan, instalazioko langileek instalaziora sartzen diren pertsonen kopurua kontrolatuko dute, jende pilaketak sahisteko, eta era horretan guneen edukiera kontrolatzeko aukera izango dute. Langile horien zeregina izango da erabiltzaileei jakinaraztea zirkulazioaren nondik norakoa, eta hori lurrean markatuta egongo da, sartzeko gezi berdeen eta irteerako gezi gorrien bidez.

Era berean, ikastaroak ere ekainaren 8an jarriko dituzte martxan. Ikastaro guztiak IMHko kantxan emango dituzte, ikastaroetako ikasleen arteko segurtasun distantzia bermatzeko. Spinning aretoak, berriz, edukieraren erdia izango du.

Izena posta elektronikoz ([olaizaga-harrera@hotmail.es](mailto:olaizaga-harrera@hotmail.es)) edo telefonoz (943 744 415) eman behar da.

## Ekainaren 15ean 3.000 bonoko beste kanpaina bat hasiko du Elgoibarko Udalak



**4**.000 bono atera zituen Elgoibarko Udalak koronabirusaren eraginez negozioiak itxita eduki dituzten herriko merkatariei laguntzeko, eta lau egunean agortu ziren denak. Egun bakarrean 1.200 bonotik gora saldu zituzten, baina jakinarazi dute ekainaren 15etik aurrera beste bono kanpaina bat hasiko dutela, 3.000 bonokoa, eta irailean ere egingo dituztela horrelako ekimenak.

### **EH Bilduren kritika**

EH Bilduk "kezka" eta "haserrea" adierazi ditu udal gobernuak merkataritzako bonoak saltzeko erabili duen prozedurarekin. Kargu hartu diote udal gobernuari arrakasta hori ez aurreikusteagatik eta "begirada estrategikorik gabe" jokatzeari egotzi diote. Era berean, bono kanpaina "inorekin kontatu gabe" antolatzea ere leporatu diote. Larriena, baina, "herritarren osasuna arriskuan" jarri dutela izan da EH Bilduren ustez. "Maiaztaren 27an, asteazkenean, bonoak herritarren eskura jarri zituztenean ikusi genituen irudiak oso larriak dira. Pandemia egoera honetan herritarren arduraren eskatzen ari gara, eta udal gobernutik zabarkeria eta arduragabekeria honekin jokatzeari zilegi da? Eskerrak herritarrek arduratsu jokatzeari dute! Udal gobernuak kasu honetan erakutsi duen inprobisazioa oso larria da", salatu dute.

Carlos Cebrian musikari mendaroarra hil da



Carlos Cebrian musikari mendaroarra hil zen asteazkenean, 48 urte zituela. Mendaroko kultur ekintza askotan eragile izan da Cebrian eta hutsune handia laga du herriko kulturzaleen artean. Musika talde askotan jardun zen urteetan. Lili Moon, Mendarok izan duen lehenengo rock taldearen sortzailetako bat izan zen, eta Uler 600, Andranak eta Munlet taldeetan ere jardun zen. L.E.D. Lunatico Encerrado en un Balcón bakarkako proiektua ere sortu zuen eta Gararock jaialdiaren bultzatzaile nagusietako bat izan zen. Era berean, Elgoibarko Sinuöse elkartearekin ere jardun izan zen elkarlanean.

## Zabaldutuzte Elgoibarko eta Mendaroko liburutegiak, baina mailegu zerbitzurako soilik

Euskadiko Irakurketa Publikoko sareko beste liburutegiek in batera zabaldutuzten astelehenean Elgoibarko eta Mendaroko liburutegiak ere, baina maileguan hartutako liburuak bueltatzeko edo etxerako liburu berriak hartzeko bakarrik. Elgoibarkoa honako ordutegi hau dauka: 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 18:30era. Maileguan hartutako liburuak itzultzeko ez dago liburutegiraino igo beharrik, sarreran bertan egokitu dutelako horretarako lekua. Liburu horiek sarreran jarri dituzten kaxetan utzi beharko dira, ondoren, hamabost eguneko berrogeialdia pasatu beharko dutelako, berriro maileguan eman aurretik. Erabiltzaile guztiak maskara jantzita joan beharko dira Aita Agirre eraikineri eta eskuak garbitu beharko dituzte sarreran. Mailegu zerbitzua erabili nahi izanez gero, aldiz, liburutegira igo behar da. Erabiltzaileak banan-banan sartu beharko dira, eta 14 urtetik beherakoak heldu batek lagunduta joan beharko dira. Liburuak

liburuzainari eskatu behar zaizkio eta mostradorean jaso behar dira. Liburuak ezingo direnez ukitu, katalogoa etxetik kontsultatzeko eskatu dute liburutegiko arduradunek, zein ale erabilgarri dagoen jakiteko. Hona katalogorako sarbidea. <https://www.liburubila.euskadi.eus> Eskaerak 943 743 525 telefono zenbakira deituta, 688 710 138 zenbakiaren whatsappen eta [liburutegia@elgoibar.eus](mailto:liburutegia@elgoibar.eus) posta elektronikoz jasoko dituzte.

### **Mendaron, ordua eskatuta**

Liburuak itzultzeko eta maileguan hartzeko zerbitzua bakarrik dago martxan. Liburutegian, beraz, ezingo da ikasi, ez eta ordenagailurik erabili ere. Liburutegira joateko aurrez ordua eskatu beharko da, 943 033 291 telefono zenbakira deituta eta maskara jantzita joan beharko da gero derrigor. Erabiltzaileak argi baldin badu zein liburu nahi duen, komeni da telefonoz zehaztea.

## Elgoibarren Internetera mugatuko dira aurten Trinitate jaiak, hein handi batean, eta Mendaron, bertan behera laga dituzte

COVID-19aren pandemiak zuzen-zuzenean eragin die Trinitate jaiak. Mendaroko Udalak jakinarazi du aurten ez dela jai-ospakizunik izango herrian, eta Elgoibarren, Internetera mugatuko dute jai-egitaraua ia osotasunean. Ekintza bakarra egingo da kalean: Udal Txistulari Taldearen Diana. Trinitate Egunean, ekainaren 7an, kalez kale jardungo dira txistulariak, 9:00etatik aurrera. Euririk ezean, Kalegoen plazan batuko dira guztiak, eta ondoren, lau laguneko hiru taldetan banatuta zeharkatuko dituzte herriko kale eta auzoak. Eguraldi iragarpenaren arabera, baina, euria emanda dago domekarako, eta kasu horretan, herriko aterpeetan joko dute. Talde batek udaletxe azpiko eta Aita Agirreko arkupeetan joko du, bigarren taldeak, berriz, Santa Ana kaleko babes ofizialeko etxean azpian, eta azken taldeak Maalako parke estalian. Txistularien emanaldiaren ostean, 11:30ean, meza izango da San Bartolome parrokiari. Egun berean izan ohi den umeen danborrada ezingo da kalean egin, eta



*Txistulariak kalejiran irtengo dira domekan.*

danborrak hartu eta leiho eta balkoietara irteteko eskatu diete haurrei. Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailak, Ludotekaren bidez, hainbat ekintza antolatu ditu Trinitateetara begira. Batetik, danborrak egiteko tutorialak zabaltu dituzte eta nork bere danborra egitera animatu dituzte herriko haurrak. Horrez gain, eskulanak egitera ere animatu dituzte herritarrak, balkoiak eta leihoak apaintzeko.

Kalean egiten diren ohiko ekitaldiak, beraz, bertan behera gelditu dira Elgoibarren ere. Baina herritarrak jairik gabe

geldi ez daitezten, Udalak aurreko urteetan ospatutako Trinitate jaietako hainbat eduki bilduko ditu Udalaren webgunean: aurreko urteetako argazkiak eta bideoen bat edo beste zintzilikatuko dituzte eta artisauen webguneak eta blogak ikusteko aukera ere emango dute. Era berean, Kultura Sailetik jakinarazi dute omenaldi bat ere egingo dietela Trinitate jaien alde hainbeste egin zuten Jesus Mari Azpiazu eta Joseba Arrizabalaga hilberriei. Omenaldi hori ere Udalaren webgunean jarraitu ahal izango da.

### Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoa, zabalik

Zuzeneko arreta ematen hasiak dira berriro Kontsumitzailearen Informaziorako Elgoibarko Udal Bulegoan. Koronabirusaren pandemia dela-eta itxita egon da, baina maiatzaren 26an zabaldu zuten bulegoa berriro. Hori bai, kontsultaren bat egin nahi duenak ordua eskatu beharko du aurrez, 943 743 088 telefono zenbakira deituta edota [omic-elgoibar@kontsumo.net](mailto:omic-elgoibar@kontsumo.net) helbidera mezu elektronikoko bat idatzita. Bulegoko arreta-ordutegia honako hau da: 9:00etatik 13:00etara, astelehenetik barikura. Bulegora joan beharra duenak maskara jantzi beharko du derrigor eta osasun agintariak ezarritako gainerako jarraibideak bete beharko ditu: sarreran eskuak garbitu eta tartekak gorde. Kontsumitzailearen Informaziorako Udal Bulegoa Merkatu Plazan dago, beheko solairuan.

### Amiantoarekin gertatutakoa bizilagunei azaltzeko eskatu dio EH Bilduk Udalari

Olaizaga kiroldegiko obretan amianto agertu da. Elgoibarko Udalak joan zen astean jakinarazi zuen dagoeneko erretiratu dutela material kutsatua eta ez dela arriskurik egon inguruko bizilagunentzat. Elgoibarko EH Bilduk esan du Udalaren webgunetik jaso zutela gertatutakoaren berri, eta iruditzen zaiela era honetako gai batek lanketa handiagoa eskatzen duela. Hori dela eta, Olaizaga kiroldegi inguruko bizilagunekin biltzeko eskatu diote Udalari, udal agintariak behar besteko azalpenak eman ditzaten: "Gardentasunagatik, auzotarrek merezi duten errespetuagatik eta herritarrak lasaitzeko helburuarekin, Udalak ahalik eta epe motzengatik bilera hori antolatu beharra dauka", adierazi dute. Gai honek Elgoibarren, eta batez ere, Olaizaga kiroldegiaren inguruko bizilagunen artean kezka eragin duela dio EH Bilduk.



## Danobatgroup-ek 80.000 euro eman ditu koronabirusaren eraginei aurre egiteko programa solidarioetarako

Danobatgroup-ek elkartasuna, gizarte-ongizatea eta ingurune hurbilaren kohesioa sustatu nahi ditu osasun-larrialdiko egungo testuinguruan, eta horretarako 80.000 euroko diru-laguntza eman du programa solidarioetara, Covid19aren eraginak arintzeko. Besteak beste, ondorengo ekintzak burutu dituzte: ikasleen prestakuntza telematikoa errazteko ordenagailuak banatu eta Internetarako konexioak instalatu dituzte, konfinamenduan *online* prestakuntza errazteko eta eten digitala saihesteko; anbulantziatarako desinfekzio-sistematik makina bat finantzatu dute; eta familia ahulentzako elikagaien banaketa edo adinekoentzako telefono bidezko laguntza-zerbitzuak eman dituzte. Gurutze Gorriarekin, elikagai bankuarekin eta Nagusilaneekin aritu dira elkarlanean. Horrez gain, nazioarteko erakundeei (UNICEF, ACNUR eta Mugarik Gabeko Medikuek) urtero ematen dizkien diru-laguntzak aurreratzea erabaki du, bizi dugun ezohiko testuinguru honetan erakunde horiek proiektuak eta ekimenak aktibatu ahal izan dituzten.



## Pentsio duinak eskatzeko, astelehenetako elkarretaratzera itzuli dira herritarrak Elgoibarren

Pandemia hasi zenetik lehenengoz plazara irten dira herritarrak, pentsio duinak eskatzeko, eta hala egingo dute aurrerantzean ere, astelehenero, 19:00etan (Kalegoen plazan). Asteleheneko elkarretaratzean koronabirusagatik hil direnen etxeko eta gertukoei elkartasuna agertu zieten, bai eta eskerrak eman ere lehen lerroan lanean jardun diren langile guztiei. "Koronabirusaren ondorioen larritasuna arintzen ari da, baina horrek ez du esan nahi erne egon behar ez dugunik, ezta ikusitako akats larriei erreparatu behar ez diegunik ere. Foru Aldundiek eta patronalak egoitza pribatuetan eta itunduetan, -gaur egun, gehienak dira-, duten erantzukizunak eskatzen du sistema publiko unibertsal, doako eta kalitatezko baterantz joatea, pribatizazioari atea ixteko", azaldu dute. Era berean 70 urtez gorakoen mugikortasuna "ordutegi estura" mugatzea txarretsi dute eta hainbat jubilatu maskarak erosteko dituzten zailtasun ekonomikoak nabarmendu. Maskarak doan banatu beharko lituzketela esan dute.





## Berdintasun plana eguneratzen hasi da Mendaroko Udala

Herriko gizarte eragile ezberdinekin batera osatu nahi du Mendaroko Udalak Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako II. plana. Lau ezau-garri nagusi izango ditu planak. Batetik, ikuspegi feminista izango du ardatz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun eta diskriminazioak nola eta zergatik gertatzen diren azaltzen saiatzeko eta ulertzeko. Bestetik, plana "zeharkakoa" eta "intersektionala" izango da, eta azkenik, "plan errealista" izatea nahiko lukete. Plan hori egiteko EAEko emakume eta gizonen VIII. Berdintasun Plana hartuko dute oinarritzat. Plana hastapenetan dago. Mendaroko argazki bat osatu nahian ari dira, eta momentuz, udal teknikari eta langileekin ari dira lanean, baina diagnostikoa osatzeko beste iturri batzuetatik ere jaso dute informazioa. Horretarako, galdetegi bat zabaldu zuten herritarren artean. Uda ondorenean, berriz, herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak elkarretatzeari ekingo diote. Hala ere, Udalak argi laga du interesa duen edonorekin biltzeko prest daudela.

## Debabarrean langabezia gora, Mendaron izan ezik

Maiatzean Debabarrena eskualdeko herri guztietan egin du gora langabeziak Mendaron izan ezik. Apirilean baino hiru lagun gutxiago daude orain lanik gabe, guztira 94, eta %9,5ekoa da langabezia tasa Mendaron. Elgoibarren apirilean baino hamaika lagun gehiagok eman dute izena Euskadiko enplegu-zerbitzu publikoaren bulegoetan, eta 589 dira orain langabeak; hala, %10,65ekoa da langabezia-tasa. Eskualdeko batez bestekoaren (%12,89) azpitik jarraitzen du hortaz. Eskualdeko datuak ez dira onak. Bi herrik gainditu dute %15eko langabezia-tasaren langa: Eibarrek eta Soraluzek. Azken hiru urteotako langabezia-tasarik altuena neurtu dute Soraluzen, daturik okerrenak dituen eskualdeko herrian. Eibarren ere puntu erdi egin du gora langabeziak, eta apirilean baino 43 langabe gehiago zenbatu dituzte.



## ETXEALDIA

## Ez nuen asko usteko...

Koronabirusak eragindako itxialdiak eta krisi sozio-ekonomikoak hankaz gora jarri du mundu osoko jendeartea. Noraezean ibili gara gehienok, eta inoiz gure buruetatik pasa gabekoak ere egin ditugu; ezustean asko, gure harridurarako. Geure buruak hobeto ezagutzeko ere balio izan digu itxialdiak. Sekula pentsatu gabeko zer egin duzu zuk itxialdian? Orain arte egin gabeko zer egiteko gauza izan zara? Orriotan kontatu digute hainbat herritarrek zer egin duten itxialdian.

- AINHOA ANDONEGI / AINARA ARGOITIA -



## AITOR NOVA, Elgoibar

“Bostpasei hilabeteko umearekin harrapatu ninduen berrogeialdiak. Hasieran gustura hartu nuen etxealdia. Lasai geunden, umearekin jolasten genuen eta arratsaldez etxetik egiten nuen lan musika eskolako klaseak ematen. Balkoia ere inoiz baino gehiago erabili dugu, otorduak egiteko eta haizea hartzeko. Hasieran ondo eraman nuen, baina denbora aurrera joan ahala gogorragoa egiten hasi zitzaidan. Hilabeteko etxealdiaren ondoren konturatu nintzen aurpegi berriak ikusteko eta lau hormen artean irteteko beharra neukala. Etxealdia arintzen hastea eskertu nuen. Etxealdia eman digun gauza onenatariko bat bizilagunen artean sortu den giroa izan da. Sare sozialen bidez jakin nuen beste herrialde batzuetan balkoietan gauza asko egiten zituztela, eta hemen ere egon ziren deialdiak *Txoriak txori* edo *Xalbadarren heriotzean* joteko. Auzotarrak pixkat animatzeko dultzaina jotzea polita izan zitekeela pentsatu nuen. Ni saxofonista naiz, baina dultzainak soinu handiagoa ateratzen du eta jendea animatzeko egokiagoa iruditu zitzaidan. Osasun langileei eskainitako txaloen ostean jotzen hasi nintzen, eta lehenengo eguna hunkigarria izan zen.

Sekulako txalo zaparrada jaso nuen, eta handik aurrera jendea zain izaten nuen. Balkoira irteten ginen txaloak ematera, eta bizilagunek keinuak egiten zizkidaten joteko, eta horrela, ohitura bilakatu zen. Adinekoek bereziki oso pozik entzuten zituzten nire kantak. Auzokideei babesa emateko eta etxealdia apur bat arintzeko ekimena bilakatu zen. Oier Etxaniz bandako kidea hil zenean saxofoia jo nuen, eta beste pare bat alditan ere bai, baina bestela dultzaina erabili dut. Egun batean auzoko balkoi batetik *Zorionak zuri* abestia abestu zuten. Ez nekien noren urtebetetzea zen ere, baina egun hartan nik neuk ere *Zorionak zuri* jo nuen, eta handik aurrera askotan eskatu zidaten kanta hori joteko, auzokideren baten urtebetetzea zenean. Niri ez zitzaidan ezer kostatzen eta jo egiten nuen. Ez nuen sekula pentsatuko balkoitik auzokideak animatzen jardungo nuenik, baina etxealdiak horretarako aukera eman zidan eta polita izan zen. Gure kalean giro polita sortu da etxealdian, ume batzuek beste balkoi batean trikitixa ere jotzen zuten-eta”.

## ANE URAIN, Elgoibar

“Egia esateko konfinamenduan ez dut ezer berezirik egin. Hasieran gauza asko egiteko beharra izan nuen, baina azkenean uste dut mundu guztiak egin duena egin dudala: kirola, sukaldeko errezetak, puzzleak... Etxetik egin dut lan, baina astean pare bat aldiz normalean lantokira joan izan naiz eta horrek itxialdia ahazten lagundu dit. Baina, nahiz eta lanera joan, mila gauza egiteko gogoia neukan eta hurrengo egunean egingo nuena planifikatzen nuen. Asko aspertu naiz. Azkenean, egunak ordu asko ditu. Hala ere, aspertzen ere ikasi dut, eta horri ere alde ona aterata beharko diogu! Itxialdian gauza asko bota ditut faltan, bereziki, jendeekin egotea. Bideo-deiak egiten genituen arren, familiakoen eta lagunaren falta igarri dut. Azkenik, kulturak izan duen garrantzia nabarmendu nahiko nuke. Nire lanean eta egunerokotasunean oso presente dudana arloa da, eta bi hilabete hauetan biderkatu egin da. Pelikula eta telesail pila bat ikusi ditut, asko irakurri dut, egunero musika entzun dut... Kulturak arinago egin digu itxialdia, eta agian, badago horrekin konturatu ez denik. Kontsumitu dugun kultura guzti horren atzean artista, egile edo eragile bat dago, eta lehen egoera txarra bazen, imajinatu dezagun hemendik aurrera datorrena! Kontzertu batera joateak merezi ez duela pentsatzen dugunean, itxialdi honetan musikak zenbateraino lagundu digun hausnartzera gonbidatuko nuke jendea”.



## OLATZ OÑEDERRA, Elgoibar

“Diseinatzaile grafikoa naiz, ez idazlea, horregatik asko kostatu zait hitz hauek idaztea, eta are gehiago kontuan izanik nire sentimenduak eta emozioak direla azaldu nahi ditudanak. Konfinamenduan, ez ohiko egoera batean, galdera asko izan ditut buruan baina, batez ere, hutsunea sentitu dut gorputzean. Eman ezin izan ditudan besarkaden hutsunea, eman ezin izan ditudan laztanena, musuena, ukitu ezin izan ditudan azalena, nigandik gertu izan ezin ditudan gorputzena, ikusi ezin izan ditudan begiraden hutsunea. Horiek guztiak behar ditudala konturatu naiz. Konfinamenduan izan ditudan gorabeherak #NIKBEHARDUT proiektu pertsonala sortzera bultzatu naute. Pultsera, kamiseta, sudadera eta poltsetan idatzitako leloen bidez, egoera honek eragin didana partekatu nahi izan dut, emozio berdinak ditugunon artean sare bat sortu, kalera irteten hasten ginenerako konplizitatea bilatuz. Azken finean, maite dudan jendearen gertutasunak ematen dio zentzua nire bizitzari. Horregatik esan dut, #NIKBEHARDUT besarkatzea, musukatzea, laztantzea, gerturatzea, begiratzea, ukitzea. Web orri bat ere sortu dut nahi duenak eskariak egiteko. [www.nikbehardut.eus](http://www.nikbehardut.eus) Eskerrak eman nahi dizkiet proiektua aurrera ateratzeko indarrak eman dizkidaten lagun eta senide guztiei. Besarkada handi bat denentzat! Eta nola ez, gertu eduki ditudan ezagun eta ezezagun guztiei! Eskerrik asko eta besarkada handi bat!”



## AITZOL URAIN, Mendara



“Daramagun bizimodu zoro honetan egin ezin izaten ditugunak egiteko aukera eman zigun etxean konfinatuta egoteak. Dena ez da txarra beraz. Denok nahi dugu asti gehiago izan etxekoekin egoteko, lehenasunezko kontua da, baina askotan ezin da, eta hori disfrutatzeko aukera izan dugu guk geuk. Bizimodua lasaiago hartzen ikasteko balio izan digu honek. Baserrian bizi gara, guk beti izan dugu etxe atarira irteteko aukera, baina ikusita herrian beste askok hori ere ez zutela, hainbat proposamen egin nituen itxialdiaren gogorrean, auzoak pozteko eta entretenitzeko. Kopla bat sortu eta kopla kantuan jarri nituen herrikideak eta banakoa dantzatu eta dantzan hasteko proposamena ere egin nien. BARRENEN ere eman zenuten horren berri eta polita izan zen. Eta bestela, ortua ere jarri dut, sekula izan ez dudana. Sartu ditugu landarak eta ikusi egin behar zer datorren, baina geuk landatutakoa jateko itxaropena badugu. Koronamaloa jarri dugu ortua zaintzen, eta txarrak uxatzeko ere balioko al du!. Oiloak ere jarri ditugu berriro, etxeko arrautzak jateko. Baserriaz eta etxekoez gehiago gozatzeko aukera eman diit koronabirusak”.

## JORGE HERNANDO, Elgoibar

“Ni bezalako pertsonak, mundua ikusteko modu nahiko arrazionala dugunok, imajinatzeko zaila den egoeran ikusi gara etxealdian. Inoiz ez nuen pentsatuko, inondik inora, hemen, Euskal Herrian, 60 egun giltzapetuta biziko ginetik, kaleak zapaldu gabe eta konfinatzeko agindua naturaltasun itxuran onartuz.

Gizartearekiko haustura sentazioak egunero kronika txiki bat idaztera eraman ninduen. Koronakronikak izena ipini nion. Gure herriaren parte sentiitzea beste helbururik ez zuten eta ez dute kronika horiek. Irakurtzen zituztenei esan nahi nien ez geundela bakarrik, gizakiak ginela gure haitezulo modernoetan giltzapetuta, elkarrekin jarraitzen genuela eta laster berriro gure kale eta plazetan elkartuko ginela. Etxealdian bakoitza ahal izan duen moduan bizirauten saiatu dela uste dut: niri gustatzen zitzaidan egunero dultzaineroari entzutea, lehen lerroan egon direnei txaloak eskaintzea... Azkenik, eskerrak eman nahi nizkioke birusari, hari esker, pilo bat gozatu ahal izan dudalako emaztearekin eta seme-alabekin: karta jokoan aritu gara, baloairekin, zapi-jokoan ibili gara... Gezurra dirudi, baina birusak erakutsi digu elkar hobeto eta gehiago zaintzen. Gustatuko litzaidake etxealdian sortu dugun izpiritua aurrerantzean mantendu ahal izatea, guztion artean orain duguna baino herri hobea eraiki dezagun”.





## MIKROBIOLOGIA

Euskal Herriko Unibertsitateko Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia saileko irakaslea eta ikertzailea da Esther Tamayo (Soraluze, 1981), Mikrobiologian doktorea. Donostia Unibertsitate Ospitaleko Mikrobiologia zerbitzuan ikertzaile jardun da hamabi urtez, eta gure inguruko hedabide askotan zientziaren dibulgazioan ari diren Miren Basaras eta Guillermo Quindós mikrobiologoek taldean dihardu egun lanean.

- AINARA ARGOITIA -

## ESTHER TAMAYO

EHUko irakaslea Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia Sailean.



### ♦ Zer du berezia koronabirusak? Mota ezberdinak daudela ere esan zaigu. Zeintzuk? Zer berezitasun dute?

Koronabirusak, gizakietan eta hainbat animalietan -hala nola gameluetan, katuetan eta saguzarretan- infekzioak eragiten dituzten birus-familia bat dira. Infekzio horiek zoonosiak dira; hau da, birusa animalietatik gizakietara transmititzen da. Egitura genetikoaren arabera koronabirus desberdinak daude. Gaur egungo SARS-CoV-2 agertu arte, gizakiak infektatzeko gai ziren beste sei koronabirus deskribatu dira (HCoV-NL63, HCoV-229E, HCoV-OC43, HKU1, SARS-CoV eta MERS-CoV). Horietako askok, HCoV-NL63, HCoV-229E, HCoV-OC43 eta HKU1 tartean, goiko arnasbideko infekzio arinak eragiten dituzte pertsona heldu osasuntsuetan, baina koadro larriagoak ere eragin ditzakete haurretan eta pertsona adinduetan, neguan normalean. SARS-CoV eta MERS-CoV patogenoen kasuan infekzio larriagoen erantzuleak dira. Aurrena 2002an SARS-CoV-1 Arnas Sindrome Akutu larriarekin erlazionatu zen, 27 herrialdetan 8.000 kasu baino gehiago eragin zituen eta %10ko hilkortasun-tasarekin erlazionatu zen. Orduetik ez da gizakietan berriaz detektatu. Bederatzi urte beranduago, 2012. urtean, MERS-CoV azaleratu zen, Ekialde Hurbileko Arnas Sindromearen eragilea zena, %30 baino gehiagoko hilkortasun-tasa zuena. MERS-CoV, aldiz, ez da desagertu, era esporadikoan pertsonak gaixotzen jarraitzen du, eta gaur egun arte 2.500 kasu inguru eragin ditu, gehienak Saudi Arabian.

### ♦ Nola zabaltzen da birusa? Zerk egiten du pertsona batzuei, baita beste patologiarik ez dutenei ere, min handiagoa egitea?

Birusa arnasbideetan sartzen denean, zelula epitelialak infektatzen ditu. Bertan, era naturalean, badaude birusak ezabatzen dituzten zelulak. Interferon izeneko substantzia bat ere ekoizten dugu infekzio birikoen aurrean, zeinak egoera antibiriko bat sustatzen duen. Hala ere, birus honek interferona inhibitzeko gaitasuna duela ikusi da. Kasuen %80an, gutxi gorabehera, infekzioa arina da eta birusa arazo handirik gabe ezabatzea lortzen dugu.

“Ia saihestezina dirudi kasuen beste gorakada bat izateak, ziur asko udazkenean edo neguan”

Zenbait kasutan, ordea, ez da lortzen. Birusa arnasbideetatik jaisten da, biriketara iristen da, eta han, hantura-prozesu larriago bat sor dezake. Hamar egunen bueltan, gutxi gorabehera, antigorputzak garatuko ditugu. Birusaren aurrean sortzen ditugun proteinak dira horiek, eta birusari aurre egiten laguntzen digute. Kasu gehienetan erantzun eraginkor eta babeslea sortzen da, baina zenbait gizabanakotan sortutako erantzun immuneak birusak berak baino kalte handiagoa eragiten duela ikusi da. Kasu horietan, birusak gehiegizko erantzun immune innatoa sortzen du, biriketako lesio handiagoarekin eta bilakaera kliniko okerragoarekin lotuta egon daitekeena, eta heriotza eragin dezake. Zergatik gertatzen da hori zenbait pertsona osasuntsuetan? Joera genetiko bat omen dago horren atzean. Bakoitzak identitate immunologiko propio eta esklusiboa dugu, eta horren bitartez patogeno berdinen aurrean erantzun immune desberdin bat sortzen dugu. Nik ez diot zuk bezala erantzungo koronabirusari. Aldakortasun handia dago pertsonen artean, eta zenbaitetan erantzun immuneak birusak berak baino kalte handiagoa eragiten du. Kasuen %10ean koadro larriak ikusten dira, ospitaleratzeko modukoak, eta %1ean zainketa mediko intentsiboak behar dira.

#### ◆ Zer mutazio erritmo du birusak beste batzuekin alderatuta?

Mutazioak birusaren material genetikoan gertatzen diren ausazko aldaketak dira. Kopiak egiten dituenean, zuzentzen ez diren akatsen ondorioz gertatzen dira. Askok ez dute inolako eraginik, beste batzuek, aldiz, abantaila ebolutibo bat suposa dezakete. Adibidez, patogenoak aurretik infektatu ezin zituen espezieak infektatzeko gaitasuna bereganatzea. Patogeno baten helburu ideala berak infektatzen duen ostalarira egokitzea da, kalte gehiegirik eragin gabe. Birusak zelula barneko patogeno hertsia dira, hau da zelulak infektatu behar dituzte nahitaez erreplikatzeko. Ez dira beraien kabuz erreplikatzeko gai. Ondorioz, gu azkar akabatzea ez litzateke abantaila handia izango beraiantzat, beraiak ere desagertuko liriatekeelako. Birus bati zer interesatzen zaio? Erreplikatzeko, oharkabean pasatzea eta ahalik eta gehien transmititzea. Normalean, ostalariarekin bizitzen ohituta ez dauden birusak izaten dira erasokorrenak, eta sortzen dituzten agerraldi epidemikoak txikiagoak izaten dira. Horregatik, ikuspuntu ebolutibo batetik espero dena da SARS-CoV-2k jasan ditzakeen mutazioak giza ostalariari egokitzeo izatea, eta horiek birulentziaren murrizketan eragina izatea. Hau da, nolabait guregana egokitzea eta elkarbizitarako oreka lortzea. Une jakin batean birulentzia handiagoa ematen dion mutazio bat jasatea ez da baztertzeko, baina probabilitatea txikia da. Ez dakigu zer mutazio-erritmo duen, baina badi-rudi antzeko beste birus batzuekin alderatuta mutazio tasa baxuagoa duela. Zenbait ikerketek bere genoma, oraingoz, nahiko egonkor mantentzen ari dela adierazi dute. 104 birusen genomaren sekuentzien analisi batek beraien arteko homologia % 99,9koa dela erakutsi du.

#### ◆ “Egia da neurrietan ez dela malgutasun askorik nabaritu, baina ikuspegi diagnostikotik eta epidemiologikotik, aldaketa nabaria da” irakurri genion zure lankide Miren Basarasi. Zer iritzi duzu konfinamenduaren arintzeaz?

Prebentzio-neurriak pixkanaka-pixkanaka malgutzen joan dira bizi izan dugun egoera epidemiologikoaren arabera. Neurri horiek zentzuzkoak dira, izan ere birus berri honen portaera ezagutzen ez dugunez, tentuz jokatu behar da.

Diagnostikoaren ikuspegitik ere aldatu dira gauzak. SARS-CoV-2 infekzioaren susmo kliniko handia duten kasuei proba diagnostikoak egiteaz gain, orain, arrisku-taldeetara zabalduta proba diagnostikoak. Era berean, EAEko biztanleek COVID-19aren aurrean duten immunitate-maila ere aztertzen ari dira, bai eta pandemiari eusteko ezinbestekoa den kontaktuen miaketa bultzatzen ere. Jardun horiek bideraezinak ziren pandemia gogorrean zenean. Horretarako, ia esparru guztietako osasun-zerbitzuak egokitu behar izan dira, denbora errekorrean. Gauza bera gertatu da laborategietan, eta, bereziki, mikrobiologiakoetan. Gaur, orain dela bost hilabete baino askoz prestatuagoak gaude beste agerraldi

bati aurre egiteko. Azkenik, aldaketa epidemiologikoari dagokionez, koronabirus kasuak nabarmen gutxitu dira eta birusaren transmisioa ere apaldu da, ezarritako neurriei esker.

#### ◆ Adituei irakurri diegu luze joko duela honek. Udazkenak kezkatzen dituela ere bai beste askori. Zergatik udazkena?



Ez dakigu SARS-CoV-2 gure artean desagertuko den, 2003ko SARS-CoV-1 arekin gertatu zen bezala, edo geratuko den, katarro arruntak eragiten dituzten MERS edo beste koronabirusak bezala. Desagertzen ez bada ere, ez dago garbi urtaroko patroia izango ote duen, beste arnas birus batzuekin gertatzen den bezala, gripea edo ohiko katarroak eragiten dituzten koronabirusak kasu. Era berean, 2 edo 5 urtean behin epidemiak sor ditzakeela ere iradokitzen dute. Datuen arabera, beroak eta erradiazioak eragina izango dutela dirudi eta udan kutsatzeko arriskua apaldu egingo da. Eguraldi onarekin, ordu gutxiago ematen ditugu leku itxietan, sakabanatuago gaude leku desberdinetan, eta horrek pertsonen arteko urruntzea errazten du eta birusaren transmisioa zailtzen. Gainera, pertsona gehiago infektatzen goazen heinean, defentsa gehiago izango ditugu populazioan, eta horrek ere zailago egingo du birusa hedatzea. Hala ere, nahiz eta intentsitate txikiagoarekin, ziurrenik udan birusaren transmisioak jarraitu egingo du. Arrazoiak: populazioaren suszeptibilitate handia eta erlazazioa, urruntze soziala ez zaintzea. Orain badakigu populazioaren oso portzentaje baxua egon dela birusarekin kontaktuan.

Oraingoz, eredu hipotetikoak baino ez daude, eta inork ez daki ziur zer gertatuko den, baina aditu askok uste dute birusa gure artean geratuko dela, oso hedatua dagoelako, eta, ziurrenik, urtaroko zirkulazio-eredu bat erakutsiko duela. Bestalde, jakinda populazioaren ehuneko txiki batek bakarrik garatu duela COVID-19rekiko immunitatea, ia saihestezina dirudi kasuen beste gorakada bat izateak, ziur asko udazkenean edo neguan. Urtaro horietan, tenperatura baxuagoen ondorioz ordu gehiago ematen ditugu leku itxietan, beste jende askorekin batera, eta horrek birusaren transmisioa errazten du. Hortik dator udazkenari beldurra. Beldur hori SARS-CoV-2aren beste agerraldi batek urte-sasoiko beste arnas birus batzuekin izan lezakeen kointzidentzian oinarritzen da. Esaterako, gripearen birusarekin. Konkurrentzia horrek dena zailduko luke eta ospitaleak saturatzeko arriskua legoke.

#### ◆ Ez dakigu zertarako aukera izango dugun udan, baina irakurri dugun gure erreketa uretan, aintziretan eta ur gezako eta tratatu gabeko putzuetan errazago meta daitekeela birusa igerilekuetan eta itsasoan baino.

Galdera honetan seguraski CSIC Institutuak argitaratutako txostenari egiten diozu erreferentzia. SARS-CoV-2 birusa itsasoko ur gazian edo igerilekuetako ur kloratuetan bideragarri mantentzea zaila da, bertan azkar inaktibatuko litzatekeelako. CSICek argitaratutako txostenean ere uraren bidez transmititzea oso zaila dela

*“Beroak eta erradiazioak eragina izango dute, eta kutsatzeko arriskua apaldu egingo da”*



## MIKROBIOLOGIA

ondorioztatu dute, baita laku eta ibaietako ur gezen kasuan ere. Urak bestalde birusaren kontzentrazioa diluitzen du, kutsatzeko probabilitatea murriztuz. Pertsonalki, ez nintzateke uragatik arduratuko. Bai, ordea, distantzia fisikoa bermatzearekin toki horietan. Uda giroko egun hauetan ikusten ari gara zer gertatzen ari den gure inguruko hondartzetan. Funtsezkoa da pertsona guztiek distantzia fisikoa mantentzea igerileku eta hondartzetan, kutsatze gehiago egon ez daitezen. Eta noski, distantzia fisiko hori eta maskararen erabilera funtsezko tresnak dira trenean eta beste garraibide publiko batzuetan kutsatzea saihesteko.

### ◆ **Maskara, bai, baina gastua ere handia da. Zer egin genazake erabilitako maskarak berriro erabili ahal izateko?**

Egokiena behin erabilitakoan botatzea da. Zientziak ere ez du erantzun argirik maskarak berrerabiltzearen eta desinfektatzearen inguruan. Maskara ugari daudenez, ezin da gomendio unibertsalik eman. Maskara higieniko berrerabilgarriak eta oihalezkoak mugarik gabe berrerabil daitezke, erabilera bakotzaren ondoren desinfektatu daitezkeelako, detergentearekin eta 60°C edo gehiagoko garbiketazikloaren bidez. Edonola ere, garbiketak maskararen ezaugarriak aldatzen ez dituela ziurtatu behar da. Bestela, Osasun Ministerioak azaldu due maskarak ur epeletan 1:50 lixiba diluzioan sart daitezkeela 30 minutuz; gero, maskara ura eta xaboiarekin garbitu behar da lixiba-hondarrak kentzeko eta lehortzen utzi.

Higienikoak eta kirurgikoak gehieenez lau orduz erabiltzea gomendatzen da. Garbitzean hondatu egiten dira. Aukera bat da zazpi egunez eguzkitan uztea, hurrengo erabilera arte. Korobirusaren bizirau-pendebora eguzkiarekin laburtzen da nabarmen. Beste aukera bat, labean 30 minutuz 70°Ctan berotzea da, maskara laberako poltsa hermetiko berezi batean sartuta. FFP eta N95 maskarentzako zortzi orduko etengabeko erabilera gomendatzen da. Emaitza onenak ematen dituzten desinfekzio-prozedurak argi ultramore germizida, ur oxigenatuaren lurrina edo 70°Cko beroa dira; izan ere, metodo horiek mikroorganismoen aurkako eraginkortasun handia dute, hainbat zikloren ostean maskaren forma nabarmen aldatu gabe. Ez dira gomendagarriak: bero lehorra 160°Ctan, alkohola, lixibatan sartzea, mikrouhin bidezko irradiazioa eta ura eta xaboiak nabarmen degradatu eta/edo maskararen forma alda dezaketelako.

Etxean maskarak 70 °C-tan 60 minutuz labean berotu daitezke, eta ondoren, sudurrera adaptatzeko maskararen metalezko zatia alkoholarekin garbitu.

### ◆ **Gainazalak ondo garbitzeko ohartarazi dute adituek. Birusak bizi-itxaropen bera al du gainazal guztietan?**

Ez. Kobrezko, kartoizko, altzairuzko eta plastikozko gainazal-letan egindako ikerketa batean ikusi zen nola 4, 24, 48 eta 72 orduz bideragarri mantendu zen hurrenez hurren, 21-23 °C-tan

eta %40ko hezetasun erlatiboarekin. Hala ere, kontu handiz interpretatu behar dira datu horiek, eta garrantzitsuen alarmerik ez sortzea da. Esperimentu horiek laborategian egin dira, eta laborategian birusaren hezetasun eta tenperatura baldintzak hobekak dira supermerkatuko gurdi batean, terraza bateko altzairuzko mahai batean edo eguzkipean dagoen eserleku batean daudenak baino. Gainera, birusek zelulak infektatu behar dituzte derri-gorrez erreplikatzeko, eta, beraz, ezin dira objektu bizigabeetan erreplikatu. Infektatzen duen zelularen barruan ez badago, inaktibatu egiten da, eta eraginkortasuna galtzen du. Hau da, zuhurtziaz jokatu behar da eta gomendatutako segurtasun eta higiene-neurriei eutsi behar zaie, baina obsesionatu gabe.

### ◆ **Konfinamendutik irteten hasiak ziren herrialde batzuetan atzera egin dute. Gerta daiteke hori gurean ere, baina adierazleak momentuz onak direla esaten digute. Nahastuta dago jendea. Batetik, pandemia larria dela entzuten dugu, baina bestetik, halako normaltasun bat ikus daiteke kalean.**

Oraindik asko dugu ikasteko, eta ezezagunaren aurrean zuhurtziaz jokatu beharra dugu. Egia da zenbait herrialdek atzera egin behar izan dutela, Alemanian edo Hego Korean gertatu den bezala. Eta horrek kezkatzen nau, jakina, bai gaixotasunari lotutako ondorioengatik, bai horrek dakarren eragin sozioekonomikoagatik ere. Baina beharrezkoa balitz, horrela egin beharko genuke. Birusa kontaktu hurbilaren bidez transmititzen da; aldagai hori ezabatzen badugu, transmisioa saihestuko dugu.

EAEn ditugun indikatzaileak onak dira. Nire ustetan ondo ari gara. Beti daude salbuespenak, baina orokorrean jendea oso kontzientziatua dagoela uste dut. Horren isla da oinarrizko birsorkuntza tasan (R0) lortu dugun balioa [COVID-19 duen pertsona batek zenbat kutsa ditzakeen]. Gaur egun 1 azpiko balioetan dago EAEn, konkretuki 0,64koa zen maiatzaren 31n. Gaixotasunaren intzidentzia ere baxua da, asistentzia-gaitasuna handia da une honetan, eta kontingentzia-plan bat ere prest dago, kasuen beste gorakada bati erantzuteko. Gipuzkoan konkretuki ez da kasu berririk antzeman egunetan. Nik uste dut biztanleek eutsi egingo diotela erakutsitako erantzukizunari, nahiz pertsonen arteko harremanak berreskuratze beharra igartzen den. Baina harremantzeko desioa egon arren, erne mantendu behar gara.

### ◆ **Ez dago COVID-19 birusaren kontrako txerto edo botika espezifikorik, baina zientzialariak hasiak dira paziente batzuek plasma erabiltzen beste gaixo batzuekin erabiltzeko. Nolako da prozesu hori? Plasma guztiak dira baleko?**

Tratamenduari dagokionez, farmako asko aztertzen ari dira, baina egia da oraindik ez dagoela SARS-CoV-2ren aurkako botika espezifikorik, ezta txertorik ere, eta horrek aukera terapeutiko posible guztiak aztertzea eragiten du. Kasu honetan, COVID-19 pasatu duten pertsonen plasma hiperimmunea erabiltzen dute.

*“Oraindik asko dugu ikasteko eta ezezagunaren aurrean zuhurtziaz jokatu beharra dugu”*

Plasma horrek birusari aurre egiteko antigorputzak ditu, eta COVID-19 duten pazienteei emango litzaieke, koronabirusak eragindako efektuak murrizteko. Immunitatea edo babesa era pasibo batean lortzeko metodoa da. Pasibo deitzen zaio, kasu honetan hartzaileren immunitate-sistema ez delakoa aktibatzen, baizik eta kanpoan ekoiztutako antigorputzak administratu. Lortzen den babesa berehalakoa da, baina behin-behinekoa. Administratzen diren antigorputzak desagertzean, efektua ere desagertzen da. Hau ez da terapia berria. Iraganean, txertoak eta antibiotikoak izan aurretik, immunitate pasiboak berebiziko garrantzia zuen.

Plasma edo seruma erabilgarriak izan daitezten, IgG antigorputz neutralizatzaileen (birusa blokeatzeko gai direnak) titulu (kontzentrazio) altua izan behar dute. Horregatik, askotan, hainbat pazienteren plasmak/serumak elkartzen dira eta kontzentratu egiten dira. Gainera, plasmak seguruak izan behar dute, hau da, birus posibleetatik eta beste agente patogeno batzuetatik garbi egon behar dute. Saiakuntza kliniko gehienetan COVID-19 larria duten pazienteengan terapia honek duen eraginkortasuna ebaluatzen ari dira. Beste ikertzaile batzuek koadro kliniko larri bat garatu aurretik duen eraginkortasuna aztertzen ari dira, erreskate-terapia gisa erabili beharrean, hau da, paziente oso larri egon aurretik. Baina tratamendu horrek kaltea ere eragin dezakeela ohartarazi dute. Espainian ere, ari dira dagoeneko aztertzen saiakuntza kliniko batean eta Galdakaoko Ospitalea ere ari da parte hartzen. Dena den, oraindik ebidentzia mugatua da, eta zenbait ikerketek emaitza itxaropentsuak badituzte ere, muga handiak dituzte.

#### ◆ Zerk kezkatzen zaitu gehien?

Atzera egin beharra izateak kasu gehiago agertu direlako, eta horrek prebentzio-neurri murriztailegoak hartu behar izatea ekartzeak. Eta baita patogeno honen aurkako txerto edo tratamendu eraginkor bat garatzeko gai ez izateak, urruntze sozialari ezin diogulako betirako eutsi.

#### ◆ Zeintzuk dira egin diren aurkikuntza handienak?

Harrigarria iruditzen zait zenbat eta zein azkar ari garen ikasten. Hasieran ez genekien ezer birus honi buruz eta bost hilabeteren bueltan, pandemia kontrolatzeko benetan baliagarriak diren datu ugari ditugu. Bi aste baino gutxiagoan bagenekien nolakoa zen birusaren sekuentzia genetikoa eta horrek aukera eman du diagnostiko-teknikak garaiz abiarazteko. Bereziki garrantzitsua iruditzen zait baita ere astez aste tratamenduaren inguruan lortzen ari diren aurrerapenak. SARS-CoV-2ren aurrean antibiral espezifikorik ez izan arren, gaixo larrienak artatzeko moduan aurrera egin da eta hori beti da itxaropentsua. Eta, noski, saiakuntza klinikoko faseetara igaro diren txertoak; une honetan, 8 dira aztertzen ari diren balizko txertoak, ehun hautagai baino gehiagoren artean. Hori guztia ikerketa eta ikerketa gehiagori esker lortu da. Espero

dezagun horrek guztiak gure politikariei gogoeta eginaraztea Osasun Publikoaren garrantziaren eta ikerketan inbertitzeko beharrraren inguruan.

#### ◆ Zer gertatzen da umeekin? Baimen murriztaileenak izan dituzte, eta orain ere, umeekin lotutako ekintzak daude geldien.



Patogeno emergenteen aurrean beti ibili behar da tentuz umeekin. Artikulu zientifikoek umee ere maskara eramatea gomendatzen dute, baina umeean maskararen erabilera egokia bermatzea zaila da. Bestalde, urruntze sozialari eustea, sudurra edo begiak eskuekin ez ukitzea edo ez tula egitean ukondoa jartzea bezalako neurriak hartzen direla bermatzea ere zaila da. Gainera, Fernando Simonek esan bezala, birusaren transmisioa ez dago soilik birus-kargari lotutako faktoreen menpe, baizik eta erlazionatzeko eta objektuak manipulatzeko moduen menpe ere. Hori guztia egon daiteke umeentzat erreserbatutako espazioak irekitzeko irizpide murriztaile edo gogorrakoak ezartzeko arrazoien atzean. Horregatik, oso zuhurrak izan behar gara, birusaren transmisio ahalmena minimoa izateko.

Prebentzio neurriak mantentzea egokia da bai, baina bestalde ez gara larrituta eta beldurtuta bizi behar, badaudelako umeekin

lotutako datu lasaigarriak edo positiboak ere. Batetik, umeean behatu den kasuistika bat dator 6 urtekin beherako haurretan maskarak erabilteza derrigorrezkoa ez izatearekin. Hasteko, SARS-CoV-2 infekzioak haurrengan duen inpaktua ezberdina da helduengan duenarekin alderatuz

gero. Txinan, 18 urtekin beherakoen intzidentzia oso txikia izan zen, eta Espainian gauza bera behatu da. Zaintza Epidemiologikoko Sare Nazionalak egindako txosten baten arabera, zeinean 248.335 kasu aztertu zituzten, 381 kutsatu (% 0,2) < 2 urtekoak ziren, 192 (% 0,1) 2-4 urteko bitartekoak eta 826 (% 0,3) 5-14 urte bitartekoak. Datu lasaigarriak beraz. Birusak eragindako infekzioarekiko haurrek izan dezaketen suszeptibilitate txikiagoa umee birus horrentzako hartzaileren heldutasuna eta funtzionaltasuna baxuagoa izatea izan daiteke. Infekzioa sortzeko, lehendabizi gure zeluletara atxikitu behar da eta ondoren barneratu egin behar da. Gure zelulekin elkartzeko birusak bere proteina batzuk erabiltzen ditu eta hauek gure zeluletako beste proteina batzuekin lotzen dira, kasu honetan ACE2ekin, eta badirudi, umeean azken horiek gutxiago espresatzen direla. Umee arrisku gutxiago izan dezakete, babestuago egon direlako, batez ere konfinamendu garaian. Bestalde, umee birusa transmititzeko gaitasunari dago-kionez, bizitzako lehen urteetan infekzioa transmititzeko gaitasun txikiagoa dagoela adierazi dute zenbait azterlanek, nahiz eta helduetan detektatu diren birus-karga bera antzeman den. Kontrapuntuan beste aldagai batzuk daude: Haurrek askoz ere klinika arinagoa azaltzen dutenez eta kasu asintomatikoak ohikoagoak direnez, uste da kasuen infradetektzio bat ere egon dela.

*“Espero dezagun politikariek gogoeta egitea Osasun Publikoan eta ikerketan inbertitzeko beharrraren inguruan”*



## SAN LAZARO



Monika Masa San Lazaroko zuzendaria, eta Mikel Goitandia, egoitzako langilea.

“Pozik gaude bisitak berreskuratzeko, baina tentuz jokatu behar dugu”

## MONIKA MASA

San Lazaro egoitzako zuzendaria

Ekainaren 8tik aurrera zaharren egoitzetan senideen bisitak jasotzeko baimena eman du Eusko Jaurlaritzak, baina ez dira lehen ezagutzen genituen moduko bisitak izango. Koronabirusaren eraginez, babes neurri zorrotzak hartu beharko dituzte bisitariek, birusa oraindik ere gure artean dagoelako. Bisitak egiteko hitzordua hartu beharko da, eta hasieran behintzat senide bakarra joan ahal izango da, eta beti senide berbera. Sarreran temperatura hartuko diote, eta maskara eraman beharko du. San Lazaro egoitzari buruz hitz egin digu Monika Masa zuzendariak.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ **Martxoaren 14an ezarri zuten alarma egoera, eta zaharren egoitzak ere itxi egin zituzten. Nola hartu zenuen berria?**

Denetik sentitu genuen, baina gehien bat gure “etxea” ondo zaintzeko indarrak hartu behar genituela konturatu ginen. Azken batean, hemengo pertsona guztiak gure zaintzapean daude eta beraien lasai eta goxo egotea zen une hartan ere gure erronka nagusia.

♦ **Nola hartu zuten egoiliarrek bisitarik ez edukitzea?**

Urduritasunez. Bat-batean eta egun batetik bestera senitartekoak ezin ikustek, beraien kontaktu fisikorik ez izateak, eta kalera ezin irteteak, emozionalki eragin handia sortzen du. Baina arazorik gabe ulertu zuten egoera oso delikatua zela, egoitzan barruan geratu behar zutela eta bazekiten egin genituen aldaketa guztiak beraien zaintza bermatzeko zela. Izugarriko lekzioa eman digute egoiliarrek eta egoera be-



rria primeran onartu dute. Egoera zail honetan erakutsi dugu San Lazaroko pertsona guztiok familia txiki bat osatzen dugula eta edozein egoeratan egoiliarrei barre txiki bat ateratzeko gai garela konturatu gara. Guztion elkarlanarekin lortu dugu egoiliarrek ondo egotea.

♦ **Bideo-deiak jarri zenituzten mar-txan. Nola moldatu zarete senideekin komunikatzeko?**

Argi geneukan nolabait komunikazioa egon behar zela senideekin. Ezin ditugu bat-batean senideengandik eta mundutik baztertu, eta geunden egoeran egin genezakeen gauza bakarria bideo-deiak, dei telefonikoak eta bideoak bidaltzea zen. Astero-astero familia guztiarekin kontaktua izatea zen gure betebeharr nagusietako bat, eta nahiko ondo moldatu gara. Ez dugu zailtasunik eduki. 48 egoiliar eta haien senideen artean ahalik eta dei gehien egin nahi genituen, senideak lasai egon zitezten. Bideo-deiez gain astero etxekoei beren senideen berri ematen joan gara eta senideek momentu oro lasaitasuna transmititu digute, guregan konfidantza guztia dutela erakutsiz. Horrek aurrera jarraitzeko indarrak eman dizkigu.

♦ **Zein izan da egoera San Lazaro egoitzan? Egoiliar eta langile guztiei egin zizkieten testak. Zein emaitza jaso zenituzten?**

Behin bisitak ezinezkoak zirela ulertuta, gure kezka nagusia birusa egoitzan ez sartzea izan zen, eta aldi berean egoiliarrei arreta ahalik eta onena ematen jarraitzea. Bisitei ateak itxita, birusa kanpoan mantentzea gure ardurapean geratzen zen eta horrek errespetua ematen zigun. Zalantzak genituen eta uneoro gure artean komentatzen genuen gauzak ondo egiten ari ote ginen. Neurri guztiak betetzen saiatzen ginen, baina inoiz ezin da jakin uneraren batean konturagutza gabe akatsen bat egin duzun edo ez. Gure lana ahalik eta hoberen egiteko helburuarekin, babes neurrien eta norberaren babeserako ekipamenduen erabi-

lerari buruzko formakuntzak jasotzeko eta simulazioak ere egin ditugu. Horrez gain, langile eta egoiliar guztiei koronabirusaren testa egiteak lasaitasun handia eman zigun, eta jasotako emaitzak erakutsi zigun langileok lan ona egiten ari ginela. Lanarekin geunden langile eta egoiliar guztiak momentu hartan negatibo eman genuen testean, eta emaitza horrek erakusten zuen gure lana ondo egiten ari ginela. Hala ere, bagenekien ezin ginela erlaxatu. Momentu hartan negatibo emateak ez zuen esan nahi birusa ezin zitekeenik egoitzan sartu, eta argi genuen inoiz baino arduratsuago jokatu behar genuela.

*“Ahal dugun guztia egingo dugu bisiten momentu hori berezia eta polita izan dadin”*

♦ **Nola moldatu zarete egoera honetan lan egiteko?**

Ez genuen sekula pentsatuko honelako egoera batean lan egitea tokatuko zitzaigunik. Gure egoitzak ez daude prestatuta horrelako egoerari erantzuteko, baina lehen esan dudana bezala, elkarlanarekin egin diogu aurre egoerari. Esan beharra dago goxotasun puntu hori ere beti eman diogula gure etxeari.

♦ **Ekainaren 8tik aurrera berriz hasiko zarete senideen bisitak hartzen. Nola hartu duzue berria?**

Egoitza bezala pozik gaude bisitak berreskuratzeak aukera honekin, baina badakigu tentuz jokatu behar dugula. Kontrol zorrotza ezarriko dugu, baina gure barruak esaten digu egoiliarrek pozitu egingo direla berriz bisitak izanda. Azken hilabeteetako momenturik

garrantzitsuena izango da beraientzat bisitak jasotzea, eta ahal dugun guztia egingo dugu lehenengo bisitaren momentu hori berezia eta polita izan dadin.

♦ **Zein izango da bisiten protokoloa? Zein babes neurri hartu beharko dituzte bisitan doazenek?**

Babes neurriak hartu beharko dituzte eta astean bisita bakarria izango da momentuz, protokoloak eskatzen duen bezala. Babes neurrien artean, distantzia zaindu beharko da, segurtasun materialak erabiliko ditugu, eskuak sarri garbitu eta tenperatura kontrolatuko zaie bisitariari.

♦ **Kezkatzen al zaitu egoitzako atea berriz zabaltzeak?**

Kezkatzen gaitu, bai, atea zabaltzeak, baina bisitena ere egoiliarren zaintzaren erronkaren zati bat da. Guk egoiliarrentzako onena nahi dugu eta gure esku dagoen guztia egingo dugu hori lortzeko. San Lazaro toki goxoa izaten jarraitzea da gure helburua. Esan beharra daukat langileen laguntza ezinbestekoa izan dela larrialdi egoera honetan, eta beraie esker lortu ditugula emaitza hauek guztiak. Azpeitiko eta Elgoibarko eguneko zentroetako langileen laguntza handia izan dugu, eta pertsona guztien ahalegina eta lankidetzaren oso garrantzitsuak izan dira une zail hauetan aurrera jarraitu ahal izateko. Denboraldi honetan zehar gu izan gara egoiliarren familia hein batean. Beraie ondoan egon gara, egoera hau ahalik eta errazena izan zedin beraientzat. Uneoro behar zuten goxotasuna eman diegu. Egoiliarrentzat egoera zaila izan den bezala, guretzat erronka izugarria izan da. Asko ikasi dugu egoera honetan, eta indartu egin gaituela uste dut. Elkarriketa bukatu aurretik baimena ematen badidazue eskerrak eman nahi nituzke: eskerrak langile guztiei, egoiliarrei, senideei, Udalari, herritarrei, enpresei... era batera edo bestera denek lagundu digutelako, eta benetan esker-tzen diegula adierazi nahi dut. Mila esker guztioi.

## Azkoitiko Udalak ezetza eman dio azkenean Larke 360 enpresak Azkaraten egin nahi zuen hondakin plantaren proiektuari

Larke 360 enpresak Azkarate gainean (Azkoitia) egin nahi zuen hondakin plantaren proiektuak hautsak harrotu ditu azkeneko urte erdian Urola bailaran eta haren oihartzuna iritsi da gurera ere. Adierazpen-truke ugariren ondoren eta herrian sortutako zalaparta ikusita, baina, azkenean ezetza eman zion ostiralean Azkoitiko Udalak (EAJ) proiektuari, Udalak berak antolatuta hamahiru alderdi eta eragiletako ordezkari izan zuten mahai-inguru luzearen ostean. Saioa hasterako, Javier Zubizarreta alkateak nabarmendu zuen Azkoitiko Udalaren asmoa obra hondakinen arazoari irtenbidea ematea izan dela hasieratik eta eurek sekula ez dutela zabortegei bat eraiki nahi izan.

Aurrerago esana zuen moduan, argi laga zuen desadostasunak baziren, Udalak ez zuela proiektua bultzatuko. Eta adostasunik ez zenez izan, saioaren bukaeran alkateak hitza eman zuen ez zuela proiektua babestuko. Hiru arrazoi eman zituen ezetzaren berri emateko *Maxixatzenera* bidalitako gutunean: "Azkoitiko EAJk ezetza ematen dio Azkarateko plantari, eraikuntza eta eraispén hondakinen planta baino gehiago delako (aurreikusitako urteko gehienezko 183.000 tonatik 20.000 tona ez dira eraikuntza eta eraispén hondakinak), bailarako premietatik askoz harago doalako eta ez dugulako herriaren zatiketa areagotu nahi".

Azkoitiko Udalak ekainaren 4rako deitu duen Lurralde Batzordean hasiko ditu Hirigintza Arauetan EEH Eraikuntza eta Eraispén Hondakinen plantak atzera botatzeko egin beharreko aldaketak. Behin aldaketa hori hasita, ezingo da EEH plantentzat aurreikusitako bi eremuetan -Azkarate eta Ipintza- horrelako gunerik eraiki. Hala ere, Udalak argi laga du atzera egiteak ez duela esan nahi eraikuntza eta eraispén hondakinak tratatzeko arazorik ez dagoenik [behar hori agertu dute gremioek ere], eta horregatik, bailarako beharren inguruko azterketa egiteko eskatu dio Mankomunitateari.

### Eztabaida luzea

Apirilaren 7an EAEko Aldizkari Ofizialean argitaratutako ingurumen baimenak -Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 11ko baimena- jasotzen zenez balorazio planta bat zen egin nahi zutena. Jaurlaritzaren agiri horretan jasotakoaren arabera, guztira, 36.898 metro koadroko azalera hartu behar zuen, eta instalazioak bi fasetan eraiki nahi zituzten. Lehenengo fase batean 11.696 metro koadro izan behar zituen azpiegiturak [sarbideko errepidea, bu-



legoak, baskula eta komun kimikoa], eta bigarregorako, beste 21.517 metro koadro. Proiektuaren ezaugarrietan azpiegitura horrek hondakin arriskutsuak biltegitatzeko gunea izango zuela ere jasotzen zen, tartean isolamendurako hainbat gai, hala nola amiantoa, zinka, eztainua eta beruna, eta horrek, Udalaren jokarakerak eta planta hori enpresa pribatu batek kudeatuko lukeela jakiteak haserrea sortu zuen auzotarrengan. Oñeder zabortegeiak eragindako ingurumen kalteak eta Zaldibarko zabortegean gertatutako luperia handia ez zituzten ahazteko, gainera. Alkateak, Javier Zubizarretak, hasieratik defendatu zuen Azkaraten egin asmo zutena ez zela zabortegei bat, baina gezurretan aritzea egotzi zioten auzotarrek. Azkarate Garbi plataformak behin eta berriz gogoratu du Udalak proiektua "nahita ere" ezingo zuela gelditu esan zuela, baina gero jakin zela lur horiek ez zirela urbanizagarriak, eta horrenbestez, arau subsidiarioetan aldaketa bat egin behar zela aurrera egiteko: hau da, alkateak zuela proiektua aurrera eramateko edo eteteko eskumena. Horri beste gertakari bat erantsen zioten auzotarrek. Auzotarren arabera, otsailaren 14an Udalak ingurumen adierazpen estrategikoa eskatu zion Jaurlaritzari. Haren bidez, arau subsidiarioak aldatu eta Azkarateko eremua urbanizagarri egin nah zuten. Martxoaren 14an, baina, derrigorrezkoak ez ziren prozedura administratiboak etenda gelditu ziren, Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuelako koronavirusagatik. Hala ere, Azkoitiko Udalak izapidea ez eteteko eskatu zion Jaurlaritzari martxoaren 26an, espedientea "interes orokorrekoa" zela argudiatuta. Eta apirilaren 22an, ingurumen adierazpen estrategikoa argitaratu zuen Jaurlaritzak. Arau subsidiarioak aldatzea Azkoitiko udalbatzak onartu behar zuen beraz, eta horregatik, besteak beste, elkarretaratzek eta lapiko jotzek egin dituzte Azkoitin.



## ▶ INAXIO OIARZABAL

SAREKO BOZERAMAILEA

Bost urte bete zituen Sarek 2019an, eta epealdi horretan hainbat eta hainbat lan egin dute euskal presoak Euskal Herrira gerturatzeko. Orain pauso bat gehiago eman dute, eta Izan Bidea egitasmoa jarri dute martxan. Euskal Herriak dituen biztanle adina kilometro egitea da helburua. Herritarrak kilometroak egiten jarri nahi dituzte, dela oinez, bizikletan, korrika, igerian... Inaxio Oiarzabal Sareko bozeramaileak eman digu egitasmoaren berri. Honi lotuta, Elena Del Puerto Sareko arduradunak hitzaldia eskainiko du martitzenean Kimetz elkarteetan, 19:00etatik aurrera. Hitzaldia Elgoibarko Sarek antolatuko du, eta herritar guztientzako irekia izango da.

- AINHOA ANDONEGI -

## “Presoek bizi duten egoera aldatzeko une aproposa da orain”

### ♦ ‘Izan bidea’ egitasmoa jarri duzue martxan. Zertan datza?

Jendarte osoarekin elkarlanean bidea eraiki nahi dugu, denok elkarrekin, eta horretarako erronka bat luzatu diogu euskal jendar-teari, inoiz egin ez den erronka bat: Euskal Herriak dituen biztanle adina kilometro egitea nahi dugu. Bakoitzak ahal duen moduan, baina gure nahia da kilometro guzti horiek ahalik eta jende gehienarekin egitea. Bide hori egiteko modu desberdinak daude, eta bakoitzak beretik emango dio ekarpena bideari.

### ♦ Zein modutan egin daitezke kilometroak?

Kilometroak egin daitezke oinez, igerian, korrika, bizikletan, zaldiz.. Ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahi dugu, bakoitzak bere esparrutik, eta eroso sentitzen den moduan bide honi ekarpena egitea.

### ♦ Zenbat kilometro dira eta nola neurtuko duzue pertsona bakoitzak egiten duen bidea?

3.171.191 kilometro. Aplikazio bat sortu dugu, eta hor bakoitzak bere izena eta egiten dituen kilometro kopurua jasoko ditu. Norbanakoek eta baita eragileek ere izango dute izena emateko aukera, eta modu horretan jakingo dugu kilometroak zenbaten artean egiten ditugun. Kontzertu, mahainguru edo antzerki batera joatea ere guretzako pausoak ematea da, eta pausoak ere kontabilizatu dugu.

### ♦ Zein da egitasmo honen helburua?

Orain arte eraiki ditugun kontsentsuak aktibatzea eta denok elkarrekin bidea eraikitzea nahi dugu. Azkenaldian kontsentsu zabala eraiki da arlo politiko, sozial eta sindikalean, eta eskatzen dugu salbuespeneko espesxe politika eta, batez ere, presoan urruntzea amaitzea. Iruditzen zaigu elkarbizitza eta bakerako beharrezkoa dela sufrimendu guztiak sahistea. Sareren helburu na-

gusia, azken batean, presoan euskal herriratze prozesua martxan jartzea eta urruntzea amaitzea da; horretarako sortu ginen. Salbuespeneko legea bertan behera utziko balute gauza asko aldatuko liriateke, eta ez genuke gaur egungo espesxe politikarik izango.

### ♦ Zergatik orain?

Presoek bizi duten egoera aldatzeko une aproposa delako. Frantziako Gobernuak pauso batzuk eman ditu, eta Iparraldeko delegaritzak batekin hartueman emankorra hasi dute, nahiz eta oraindik korapilo batzuk askatzeko dauden. Espainian, berriz, eratu berri den gobernu progresista honek hainbat aldiz esan du espesxe politika aldatzeko borondatea duela, baina egia da Pedro Sanchez agintean jarri zenetik gaur arte aldaketa txiki batzuk besterik ez ditugula igarri, eta uste dugu orain dela benetako aldaketak emateko unea. Elkarrekintzarako eta elkarrekin eraikitzeko une aproposa dela iruditzen zaigu. Presoek bizi duten egoeran aldaketa integral bat behar dugu, eta itxaropen-etsu egoteko arrazoiak badaude.

### ♦ Zein da une honetan Sebas Etxaniz Elgoibarko presoaren egoera?

Sebas Etxanizek badauka beste ezaugarri bat; adinekoa dela. Egoera horretan etxetik gertuen daukan espesxe batean egon beharko luke, eta konfiantzazko medikuren batek zainduta. Gainerakoen artean larriki gaixo dauden hogeitasei bat preso ditugu. Gobernuak badirudi kasu bakoitza banan-banan aztertuko duela, eta espero dugu egoera konpontze bidean jartzea.

### ♦ Bost urte bete zituen iaz Sarek. Zein balorazio egin duzue zuen ibilbideaz?

Denon artean eta ez Sarek bakarrik, bost urte eta erdian eraiki dugu denok ulertzeko moduko hizkera bat, eta adostasun batzuk ere lortu ditugu. Lortu dugu baita ere gaur egun gai honi buruz normaltasun osoz hitz egin ahal izatea, eta hori pauso garrantzitsua da.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 649 044 223

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.  
☎ 615 526 482

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan. Erizain titulua eta esperientzia ditut.  
☎ 631 836 738

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan.  
☎ 638 963 048

Edozein lan egiteko prest nago, 8:00etatik 11:00etara eta asteburuetan edozein orduan.  
☎ 632 893 515

Hirugarren mailako Pedagogia ikaslea umeak zaintzeko edo eskola partikularrak emateko prest. Euskalduna naiz eta begirale titulua daukat. Ordu-tegi malgua.  
☎ 697 672 908

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka eta gauzez ere bai.  
☎ 611 306 391

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo jardun osora.  
☎ 632 415 374

Edozein lan egingo nuke. Erizain laguntzaile ikasketak ditut.  
☎ 647 336 626


Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan ere bai. Titulua daukat.  
☎ 631 121 148

**ETXEBIZITZAK.....**  
Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ 632 642 320

**BESTELAKOAK.....**  
Guretzat balio handia duen egurrezko panda bat galdu genuen Leku Ederren, topatu duenari eskertuko genioke Udaltzaingoa lagatzea.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.




Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzkoako Enpresa Administrazioaren Erakunde Nazionala

**Gure komunitatean bi etxebizitza daude elkarren ondoan, beheko solairuan. Etxebizitza bakoitzaren eskrituran jartzen du etxebizitza bakoitzak argi-patioarako irteera propioa duela, eta erabilera beste etxebizitzarekin partekatzen duela. Etxebizitzetako batek badu ate hori eraikina bera egin zutenetik, baina beste etxebizitzak leihoa bakarrik dauka patioara. Leihoa duen jabe horrek jakinarazi du patioara sartzeko ate bat ireki nahi duela. Nire galdera da ea etxebizitza horrek patioaren erabilera eskusibo partekatua duenez, ate ireki dezakeen, kontuan hartuta eraikina egiteko obran ez zutela atetik egin, leihoa baizik.**

Zuk adierazten duzun bezala, etxebizitza bakoitzaren eskrituran hitzez hitz transkribatzen da etxebizitza bakoitzak irteera propioa duela argi-patioara. Eta jarraitzen du esaten erabilera eskusiboa aldameneko etxebizitzarekin partekatzen dela. Beraz, jabe horrek eskriturak baimentzen dituen eskubideak egokitu ditzake erregistroz kanpoko errealitatera, eta, beraz, bidezkoa litzateke ate bat irekitzea. Eraikina egin zenetik etxebizitza batek ate irekitzea eta beste etxebizitzak leihoa ez du preskripzio-ondorioz baten alde edo besteren kaltetan.


**Ondorioa. Jabe horrek ate hori ireki dezake, eta ez du alde aurretik komunitatearen baimenik behar, nahiz eta perimetroko hormetan obra bat egin behar izan.**



**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**



**ASESORIA AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Gure printzesa maiteak dagoe-neko 10 urte! Zorionak, **Laiene**, izugarri maite zaituen familia osoaren partez.



Zorionak, **Arhane**, gaur 12 urte bete dituzulako. Muxu handi bat, familiako guztion partez.



Zorionak, **Jon**, ekainaren 9an 5 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa eguna! Etxekoan, eta bereziki, Leireren partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Sare**, gaur 9 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familia osoaren partez.




Zorionak, **Salma** Samadi Essaid, ekainaren 10ean 11 urte beteko dituzulako. Gurasoen partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Peio!** Zapatuan 4 urte! Muxu potolo bat Danelen, aita-xoren eta amaxoren partetik!



Zorionak, **Maddi eta Haizea**, atzo 10 urte bete zenituztelako. Muxu handi bana etxeko guztien partez.



Zorionak, **Jon** eta **Javier**, 8 urte handi beteko dituzuelako. Muxu handi bana familiako guztion partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Elgoibarren guardiako botikarik ez dagoen jai egunetan Yudego farmazia zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara.

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
5 BARIKAKUA	6 ZAPATUA	7 DOMEKA	8 ASTELEHENA	9 MARTITZENA	10 EGUAZTENA	11 EGUENA	12 BARIKAKUA
Egunez <b>*Ibañez</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Arriola</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>
Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Arriola</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>

**\* Fernandez:**  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

**\* Ibañez:**  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

**\* Oruesagasti:**  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gavez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984

**BARREN sare sozialetan**

facebook.com/barrenaldizkaria
twitter.com/barreneus
instagram.com/barrenaldizkaria

## 8 ASTELEHENA

**Argazki lehiaketa** Elgoibarko ludo-tekak antolatuta, 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Gaia: Elgoibarko udaberriko loreak. Hilaren 19ra arte egongo da parte hartzeko aukera. Whatsapp: 656 740 793 / *ludoteka-elgoibar@gmail.com*

## 9 MARTITZENA

**19:00** Hitzaldia: Elena del Puerto Sareko arduradunak *Izan Bidea* egitasmoaren berri emango du Kimetz elkartearen irekia da ekitaldia. Antolatzailea: Sare Elgoibar.

**18:30** Hitzaldia: Dolua familian hitzaldi zikloa. Antolatzailea: Urbizixa. Zoom plataforma digitalaren bidez eskainiko dute. Hizlariak: Eider Otxoa dolu terapeuta profesionala eta Iñaki Arregi doluaren laguntasunean eta adiskidetzean aditua. Izena emateko: 627 117 819

## TRINITATE JAIAK ELGOIBARREN



### 5 BARIKUA

Udaltxeko balkoia apaintzea.

### 6 ZAPATUA

- Trinitateetako Azoka Berezia. Udalaren webgunean.
- Txantreako, Bergarako eta Iruñeko konpartsen aurkezpena. Udalaren webgunean.
- Emakumeen herri kirolak. Udalaren webgunean. Jesus Mari Azpiazuri eta Joseba Arrizabalagari omenaldia.
- Erromeria: Udalaren webgunean.
- Danborradako argazkiak. Udalaren webgunean.
- Idi demak. Jesus Mari Azpiazuri eta Joseba Arrizabalagari omenaldia. Udalaren webgunean.

### 7 DOMEKA

#### Trinitate eguna

**9:00** Diana, Udal Txistulariekin, herriko auzoetan.

● Artisau azoka. Udalaren webgunean.

**10:30** Umeen danborrada, etxeko balkoietatik.

**11:30** Meza. San Bartolome parrokian.

● Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten konpartsa. Udalaren webgunean.

● Udal musika banda. Udalaren webgunean.

**OHARRA:** Egitarau hau Udalaren webgunean ([www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)) jarri dute, eta klik batean ekitaldi bakoitza ikusteko aukera egongo da.

## Hileta-mezak ekainaren 5etik 19ra bitartean

### Maria Pilar Peñalba

2020ko martxoaren 16an hil zen, 98 urte zituela.  
Hileta-meza, ekainaren 5ean, Elgoibarren, 19:00etan.

### Juan Barrenetxea Aranzibia

2020ko martxoaren 23an hil zen, 76 urte zituela.  
Hileta-meza, ekainaren 8an, Elgoibarren, 19:00etan.

### Elena Celaya Alzola

2020ko apirilaren 8an hil zen, 54 urte zituela.  
Hileta-meza, ekainaren 10ean, Elgoibarren, 19:00etan.

### Jose Luis Urbiola Elosegui

2020ko apirilaren 9an hil zen, 86 urte zituela.  
Hileta-meza, ekainaren 12an, Elgoibarren, 19:00etan.

### Antonio Leon Navarro

2020ko apirilaren 14an hil zen, 53 urte zituela.  
Hileta-meza, ekainaren 15ean, Elgoibarren, 19:00etan.

### Jose Mari Azpillaga Iceta

2020ko apirilaren 10an hil zen, 88 urte zituela.  
Hileta-meza, ekainaren 17an, Elgoibarren, 19:00etan.

### Mariam Eizburu Kortaberria

2020ko apirilaren 11n hil zen, 67 urte zituela.  
Hileta-meza, ekainaren 19an, Elgoibarren, 19:00etan.





## Angel Iparraguirre Landa

2020ko maiatzaren 29an hil zen, 70 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Ricardo Torquemada Docampo

2020ko maiatzaren 30ean hil zen, 72 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Antonio Perez Muñoz

2020ko ekainaren 1ean hil zen, 90 urte zituela.

*Izan zarenagatik eta erakutsi duzunagatik  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

Zure familia




## Antonio Perez Muñoz

2020ko ekainaren 1ean hil zen, 90 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara, baina betiko izango  
zaitugu gure bihotzetan.*

Herri-gain elkartea



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

# ► Gremioen gida

## ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albixuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)



Olaso industriagunea, 17 beheka  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

## ITURGINTZA




BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
[bienda@pagoagasa.com](mailto:bienda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[talero@pagoagasa.com](mailto:talero@pagoagasa.com)

ELGOIBAR



San Roke, 10-A, beheka B  
Elgoibar  
Floren Cld: 047 463 436  
[ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)



Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

[ongif@ongifelgoibar.com](mailto:ongif@ongifelgoibar.com)

[www.ongifelgoibar.com](http://www.ongifelgoibar.com)



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheka  
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

## ERREFORMAK



Errosario kalea, 15 beheka - Elgoibar

- ◉ Proiektuak eta erreformak
- ◉ Sukaldeak
- ◉ Gremioen koordinazioa
- ◉ Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

## IGELTSERITZA



Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten dituzte

[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 beheka - 2. zkia  
Elgoibar

610 226 651

## PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552

606 431 120

[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

- Igeltseritza
- Pintura

## ELEKTRIZITATEA




Uparitzaga, 10, 6.B

Elgoibar

[karranza@gmail.com](mailto:karranza@gmail.com)

Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 999



Raimon: 677 512 462  
Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Pedro Migel Uruzuno, 14 beheka  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
[ego.luz@hotmail.com](mailto:ego.luz@hotmail.com)

## LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223

[lodosofj@gmail.com](mailto:lodosofj@gmail.com)

Tel.: 943 74 34 90

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea

- Aroztegiak
- Erreformak